

AULESTI / Ipuin kontalaria egongo da gaur erakusketa aretoan

LEIRE AKARREGI

Trolebuk eta Kultura Elkartek umeentzako ipuin kontalaria ekarriko dute gaur. Berbaro Antzerki Taldearen emanaldia Udal Erakusketa Aretan izango da, 17:30ean.

Itzalak, txotxongiloak eta antzerkia nahasten ditu Berbarokoen beharrak. Izan ere, liburutegiko liburuzain Maritxu saguak hiru ipuin kontatuko dizkie umei. Emanaldia, hortxe hasten da, hain zuzen ere: Umeak basoko liburutegian sartuko dira ipuinak entzutera.

Puzkerrak botatzea gustatzen zaion 5 urteko mutikoaren istoria, saguzartxo baten abenturak zein maitasunezko eta adiskidetasunezko ipuina ikusi eta entzuteko aukera edukiko dute Aulestiko umeek.